# Emakumea Eskola da



ESCUELA
ARTES + OFICIOS
VITORIA-GASTEIZ
ARTE + LANBIDE
ESKOLA

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Con motivo del 250 aniversario, este cuadernillo pretende mostrar brevemente la presencia y las ausencias de las mujeres en la Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz en estos 250 años de andadura. Describir su trayectoria como alumnas y docentes, así como su presencia en los órganos de administración y decisión, reflejando su papel en todas sus facetas.

# ALUMNAS EN LA ESCUELA

Cuando nace la Escuela Gratuita de Dibujo de Vitoria en 1774, no permitieron el acceso de las mujeres. Si bien sus fundadores, la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, abogaban por la educación de ambos sexos como motor de cambio.

Esta decisión responde al contexto histórico, donde únicamente las mujeres pertenecientes a la nobleza o a la burguesía, en ocasiones, recibían clases de pintura, dibujo, música, canto o labores de costura, al considerarlas artes de adorno apropiadas para el desarrollo de la feminidad. por lo que muy pocas mujeres pudieron acceder a una educación más allá de la obtenida en su ámbito familiar, consistente en las labores de la casa, familiares y religiosas.

En el campo artístico y de manera excepcional, algunas mujeres llegaron a pertenecer como miembros de Mérito de las Academias de grandes ciudades, después de demostrar sus conocimientos. En casi todos los casos, la formación la habían recibido por ser hijas, hermanas o esposas de pintores o profesores. Aun así, este título no les permitía asistir a las clases de desnudo, viéndose obligadas a cultivar géneros considerados “menores” como el retrato, el paisaje o la naturaleza muerta.

Aunque en Vitoria no se diera ningún caso, si resaltamos que a finales del s.XVIII, algunas mujeres pertenecientes a la nobleza que tenían un

nivel cultural alto e inquietudes por el aprendizaje, organizaron tertulias culturales con temas muy diversos. Algunas de ella fueron Manuela de Salazar y Sánchez de Samaniego, II Marquesa de La Alameda; M.ª Manuela de Esquivel y Peralta; M.ª Antonia Javiera de Peralta, Marquesa de Legarda; M.ª del Pilar Acedo y Sarria, VI Marquesa de Montehermoso y IV Condesa de Vado.

Fue en 1840 cuando la Academia de Bellas Artes de Vitoria abrió la matrícula a las niñas de entre 11 y 12 años, comenzando 114 alumnas a formar parte de la vida de la escuela.
Los objetivos de la enseñanza dirigida a las mujeres, fueron los de ocupar el tiempo libre de las alumnas, aprovechándolo para cultivar su gusto. Dichos objetivos distaban mucho de los ofrecidos al alumnado masculino, que estaban dirigidos a su capacitación para el mundo profesional. Esta distinción se refleja en la estructura educativa diseñada para las jóvenes en las que la duración de los cursos, el horario y las asignaturas a las que tenían acceso (Dibujo de Adorno y Dibujo Figura) no eran las mismas que las de los jóvenes.

Si bien en el estado existían algunas academias privadas, podríamos decir que la de Vitoria estuvo entre las primeras escuelas en ofertar clases de Dibujo a niñas en el mismo centro y con los mismos profesores que los niños.

A partir del S XX se comienza a ampliar la oferta formativa dirigida a mujeres, comenzando en 1900 con el taller de Corte y Costura que desde su inicio tuvo mucha demanda, siguiendo con Mecanografía en 1913 y Mercantil en 1914 que abarcaba Aritmética, Cálculo y Contabilidad.

En los años veinte la oferta académica que tenían las jóvenes dentro de las tres secciones en las que se estructuraba la enseñanza era: Corte y Costura; contabilidad, francés, mecanografía, aritmética y dibujo de adorno y de figura.

En el curso 1922-23 incluirían taquigrafía y a comienzos de la década de los años treinta, inglés. Esta oferta educativa se mantuvo prácticamente igual para las mujeres durante casi tres décadas, hasta 1950 cuando se abre una nueva clase a la que pueden acceder las alumnas, Modelado en Barro.

En 1964 desaparece la diferenciación por sexos, por consiguiente, las jóvenes pueden acceder a todas las enseñanzas, exceptuando el curso de Preparatorio. Esto supuso que las mujeres por primera vez pudieron asistir a las clases de copia del natural con modelo desnudo.



Modelaketako klasea. 1979/80 ikasturtea
Clase de modelado. Curso 1979/80

# PROFESORAS EN LA ESCUELA

Si para entrar a la Escuela como alumnas, las mujeres tuvieron que esperar más de sesenta años, para acceder a un puesto de profesora tuvo que pasar más de un siglo, exceptuando el año en que Daría Imbert impartió clases de Dibujo en 1866. Carlos Imbert, profesor de las niñas, solicitó a la Junta Directiva que autorizara a su hija Daría Imbert a sustituirle impartiendo las clases de dibujo durante su ausencia o enfermedad. Imbert se había formado en la escuela entre 1857 y 1862 y La Junta consideró que Daría estaba lo suficientemente instruida por lo que la pusieron al frente de las clases el curso de 1866. Daría Imbert fue la primera mujer en enseñar en la Escuela no solo a niñas, sino también a alumnos varones.

Entendiendo el caso de Daría como algo puntual, hay que avanzar en el tiempo para encontrar la primera profesora que de manera continuada esté al frente de una materia. Como hemos comentado, fue en 1900 cuando abrieron la clase de Corte y Confección siendo siempre mujeres las que estuvieron como docentes.

A finales de los años cincuenta, de treinta profesores que estaban contratados en la escuela, solo había una mujer profesora. A finales de los años sesenta, destaca que por primera vez hay una mujer en la sección artística, en concreto en la de Cerámica. La paridad en el claustro se consiguió en la década de los noventa.

# PROFESIONALES NO DOCENTES EN LA ESCUELA

Fuera del ámbito académico la presencia de la mujer en la escuela ha sido escasa. Sin embargo, hubo un caso excepcional, que por su implicación constante contribuyó a la buena marcha de la escuela, Nieves Partearroyo, viuda de Heraclio Fournier quién ejerció de benefactora de la Biblioteca Fournier de la Escuela, contribuyendo con numerosas donaciones a lo largo de los años.

En la administración, en 1959 entró a trabajar la primera mujer como secretaria. En cuanto a los cargos dentro de la Junta no será hasta 1974 cuando tome posesión la primera vocal de la Junta de Dirección y hay que avanzar hasta 2015 para hallar la primera directora de la escuela.




Arte eta Lanbide Eskolako ikasleak. Alumnas y alumnos de la Escuela de Artes y Oficios. YAN-13X18-104_51, C.Yanguas, AMVG

# EMAKUMEAK IRAKASLEZ BESTEKO LANBIDEETAN, ESKOLAN

Akademiaren eremutik kanpo, oso emakume gutxi egon dira Eskolan. Alabaina, aparteko kasu bat egon zen, inplikazio etengabearengatik Eskolari ekarpen handia egin zion emakume bat: Nieves Partearroyo Heraclio Fournierren alarguna Eskolako Fournier Liburutegiaren ongilea izan zen, eta, urteetan zehar, dohaintza ugari egin zituen.

Administrazioan, 1959an ikusi genuen lehenengo emakume idazkaria. Zuzendaritza Batzordearen barruan, berriz, 1974ra arte itxaron behar dugu lehenengo emakume batzordekidea ikusteko, eta denboran aurrera egin behar dugu, 2015era arte, Eskolako lehenengo emakume zuzendaria aurkitzeko.



Landatxoa, 1912
El Campillo, 1912
GUI-VII-049_03, E.Guinea, AMVG

# EMAKUMEAK ETA IRAKASKUNTZA, ESKOLAN

Emakumeek hirurogei urte baino gehiago itxaron behar izan zituzten eskolara ikasle gisa sartzeko; irakasle izateko, berriz, mende bat baino gehiago igaro behar izan zen, Daria Imbertek 1866an Marrazketako klaseak eman zituen urtea kenduta. Carlos Imbert nesken irakaslea zen, eta Daria Imbert alabari bere ordez aritzeko baimena eman ziezaiotela eskatu zion Zuzendaritza Batzordeari, bertaratzen ez zenean edo gaixoaldietan Marrazketako eskolak eman zitzan. Imbert Eskolan trebatu zen 1857tik 1862ra bitartean, eta nahikoa ikasia zela balioetsi zuen Zuzendaritza Batzordeak; beraz, eskaera onartu, eta, 1866, Imbert alaba klaseak ematen hasi zen. Daria Imbert izan zen Eskolan neskei ez ezik mutilei ere klaseak eman zizkien lehenengo emakumea.

Dariaren kasua, baina, kontu puntuala izan zen, eta denboran aurrera egin behar dugu ikasgai batean modu jarraituan aritu zen lehenengo emakumea aurkitzeko. Esan bezala, 1900ean ireki zuten Joskintzako klasea, eta, tailer haietan, emakumeak bakarrik aritu ziren irakasle-lanetan.

50eko hamarkadaren amaieran, Eskolan kontratatuta zeuden hogeita hamar irakasleetatik bakarra zen emakumea. 60eko hamarkadaren amaieran, nabarmentzekoa da lehen aldiz egon zela emakume bat Arte Atalean; zehazki, Zeramikan. Klaustroan, 90eko hamarkadan lortu zen parekidetasuna.

20ko hamarkadan, emakume gazteek honako eskaintza akademiko hau zeukaten irakaskuntza egituratzen zuten hiru ataletan: Jantzigintza, Kontabilitatea, Frantsesa, Mekanografia eta Aritmetika eta Apainduren eta Figuren Marrazketa.

1964an, sexuen araberako bereizketa desagertu zen, eta, ondorioz, emakumeek eskola guztiak jaso ahal izan zituzten, Prestaketako ikastaroa izan ezik. Horrenbestez, emakumeak lehen aldiz sartu ahal izan ziren modelodun naturalaren kopiako klaseetara (Estatuko beste eskola batzuek bezalaxe, zenbait urteko atzerapena zeraman honek ere, Europako akademiekin eta eskolekin alderatuz gero). Ikasturte berean, Figuren eta Apainduren Marrazketako kategorian lehen aldiz eman zizkieten ikasturte amaierako aparteko sariak emakumeei, ordura arte Diseinuko eta Joskintzako klaseetan baino ez baitzizkieten eman.



Marrazketa klasea,
1957
Clase de Dibujo,
1957
PAR-1621_6,
J.M.Parra, AMVG

XVIII. mendearen amaieran, Gasteizen halakorik gertatu ez bazen ere, nobleziako emakume batzuek —kultur maila eta ikaskuntzarekiko jakin-min handiak zeuzkatenek— solasaldi kulturalak antolatu zituzten askotariko gaiez aritzeko. Besteak beste, hauek aipa ditzakegu: Manuela Salazar Santxez de Samaniego, Alamedako II. markesa; Maria Manuela Eskibel de Peralta; Maria Antonia Javiera de Peralta, Legardako markesa; Maria Pilar Acedo Sarria, Montehermosoko IV. markesa eta Vadoko IV. kondesa.

1840ko apirilean, Gasteizko Arte Ederren Akademiak matrikulatzeko aukera eman zien 11 eta 12 urte arteko neskei. 114 ikasle Eskolako bizitzaren zati bihurtu ziren.
Emakumeei zuzendutako irakaskuntzaren helburua ikasle horien denbora librea betetzea zen, gustua landu zezaten. Helburu hori gizonezko ikasleei eskainitakoetatik oso urrun zegoen, ordea, arlo profesionalerako gaitzea baitzen haien prestakuntzaren xedea. Bereizketa hura emakume gazteentzat diseinatutako hezkuntza-egituran islatu zen, emakumeentzako ikastaroek bestelako iraupenak, ordutegiak eta ikasgaiak (Apainduren Marrazketa eta Figuren Marrazketa) baitzeuzkaten.
Estatuan zenbait akademia pribatu bazeuden ere, Gasteizkoa ez zen izan neskei mutilen zentro berean eta irakasle berberekin marrazten ikasteko aukera eskaini zien lehenengoetako bat.

XX. mendetik aurrera, emakumeei zuzendutako prestakuntza-eskaintza zabaltzen hasi zen, eta, 1900ean, Joskintzako tailerra martxan jarri zuten. Hasiera-hasieratik sekulako arrakasta izan zuen, eta, haren ondotik, Mekanografia (1913) eta Merkataritza (1914) etorri ziren; azken horren barruan, Aritmetika, Kalkulua eta Kontabilitatea sartzen ziren.

# EMAKUMEAK, ESKOLAN IKASLE

1774an, Gasteizko Doako Marrazketa Eskola sortu zutenean, emakumeei ez zieten Eskolan ikasten utzi. Hala ere, bere sustatzaileen diskurtsoan, emakumeen hezkuntza, aldaketarako motortzat jotzen zuten.

Erabaki hark testuinguru historiko zehatz bati erantzun zion, garai hartan ezaugarri eta eginkizun desberdinak egozten baitzitzaizkien gizonei eta emakumeei. Nobleziako edo burgesiako emakumeek bakarrik jasotzen zituzten, batzuetan jaso ere, pinturako, marrazketako, musikako, kantuko edota joskintzako eskolak, feminitatea garatzeko apaindura-arte egokiak zirela iriztzen ziotelako. Hortaz, oso emakume gutxik izan zuten aukera familia-eremutik haragoko hezkuntza jasotzeko, eta, beraz, gehienek etxeko lanetan, familian eta erlijioan oinarritutako heziketa jasotzen zuten.

Artearen eremuan eta salbuespenez, emakume batzuek hiri handietako akademietako merituzko kide izatea lortu zuten, ezagutzak erakutsi ondoren.Gehien-gehienetan, gizon pintoreen edo irakasleen alabak, arrebak edo emazteak izateagatik jasotzen zuten prestakuntza. Hala ere, titulu horrek ez zien biluzien klaseetara joaten uzten, eta, beraz, ez zuten izaten “bigarren mailakotzat” jotako generoak landu beste aukerarik, hala nola erretratua, paisaia edo natura hila.

250.urteurrenaren harira, kuaderno honetan, emakumeek Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren 250 urteko ibilbidean izandako presentziaren eta absentzien berri eman nahi dugu. Ikasle eta irakasle gisa egindako ibilbidea azalduko dugu, baita administrazio-organoetan nahiz erabakiguneetan izandako presentzia ere, alderdi guztietan betetako eginkizunak jasotzearekin batera.



# Emakumea Eskola da



ESCUELA
ARTES + OFICIOS
VITORIA-GASTEIZ
ARTE + LANBIDE
ESKOLA

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA